

**"ESKORIATZA BIZIRIK" EKIMENAREN BAITAN, COVID 19 PANDEMIAK ERAGINDAKO KALTE EKONOMIKOEI AURRE EGITEKO, HERRITARREI BONUAK SALTZEKO KANPAINAREN OINARRIAK.**

**1.- KANPAINAREN EZAUGARRIAK:**

- Kanpainaren helburua da Covid 19 pandemiaren osasun larrialdiak sortutako kalteak arintzen laguntzea. Hau da, erosketara bonuak sortzea eta herritarrei saltzeko, Eskoriatzako establezimenduetan kontsumitu dezaten, eta horrela, udalerriko ekonomiari bultzada eman diezaioten.
- Kanpainaren onuradunak: alarma egoeragatik itxita egon diren Eskoriatzako merkataria, ostalari eta bestelako zerbitzuak ematen dituzten profesionalak (estetika eta osasun zentruak), loteria eta bestelako joko establezimenduak, farmaziak eta estankoak, salbu.
- Bonuen erosleak: adinez nagusiak diren Eskoriatzan erroldatutako pertsonak.
- Bonu bakoitzaren balioa 30 eurokoa da. 15 euro herritarrak ordainduta, eta beste 15 euro Eskoriatzako Udalak (Udalak %50eko ekarpena egingo du, 1/2).
- Bonuen ezaugarriak:
  - Zatikaketa. 5 euroko, 10 euroko eta 15 euroko txarteltxotan.
  - Bonu bakoitzak identifikazio zenbaki bat du.
  - Bonuaren materiala kartulinaren antzekoa da, material, kolore edo testura berezi batekin egindakoa eta enumeratua. Bonuen faseak bereizteko kolore desberdinak erabili dira.
- Guztira 2.100 bonu jarriko dira salgai.
- Kanpainaren faseak eta fase bakoitzean salgai jarriko den bonu kopurua. Kanpainak 3 fase izango ditu.
  1. fasean: (ekaina) ..... 700 bonu, abuztuaren 31ra arte gastatzeko.
  2. fasean: (iraila)..... 700 bonu, azaroaren 31ra arte gastatzeko.
  3. fasean: (azaroaren 15a) .....700 bonu, abenduaren 31ra arte gastatzeko.
- Udalaren aurrekontutik guztira ordainduko den diru laguntzaren zenbatekoa 31.500 euro izango da (2.100 x 15 euro).

Ordainketak egiteko "0500.480.431.00.01 diru-laguntza merkataritza" aurrekontu partida erabiliko da, eta 3 fasetan gaituko da, fase bakoitzari dagokion aurrekontuaren arabera. Hau da:

  - Ekainean (700 x 15 €) 10.500 € -ko aurrekontua gaituko da.
  - Irailean (700 X 15) 10.500 € -ko aurrekontua gaituko da.
  - Azaroan (700 X 15€) 10.500 € -ko aurrekontua gaituko da.

**2.- KANPAINAREN FUNTZIONAMENDUA ETA FASEAK**

2.1.- PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIO KANPAINA: "Eskoriatza Bizirik" bonuen kanpainaren inguruko informazioa helaraziko zaie, alde batetik, bonuak erabiliko dituzten komertzio eta jarduera ekonomikoetako arduradunei, eta, bestetik, herritarrei.

Kanpainan parte hartzen ez duten establezimenduetako arduradunek, eurek azaldu beharko diete bezeroei ez dituztela bonuak hartzen.

2.2.- BONUEN SALMENTA: Bonuak hiru fasetan salduko dira; ekainean, irailan eta azaroan. Lehenengo bi faseek hiru hilabeteko iraupena izango dute, ekainekoak abuztuaren 31ra arte eta irailekoak azaroaren 30era arte. Hirugarren fasea, berriz, hilabete eta erdikoa izango da, hau da, azaroaren 15etik abenduaren 31ra.



## **Garapen Ekonomiko Jasangarria**

2021MDID0003

Bonuak Ibarraundin salduko dira, astelehen eta ostiraletan, 11:00etatik 13:00etara eta asteazkenetan 17:00etatik 19:30ra.

Bonuak kreditu txartelarekin ordaindu beharko dira.

2.3. **BONUEN BANAKETA HERRITARREN ARTEAN:** erosle bakoitzak (adinez nagusia eta Eskoriatzan erroldatuta) fase bakoitzeko bonu bana erosteko aukera izango du. Hori bermatzeko, bonuak erosteko momentuan, bonuak erosten dutenen NAN zenbakia eskatuko da.

2.4. **BONUEN ERABILERA:** herritarrek bonua erosi ondoren, salbuetsita ez dauden Eskoriatzan kokatutako komertzio edo jardueretan gastatzeko aukera izango dute. Jarduera horietako arduradunek, jasotako bonuari erosketa tiketa atxikitu beharko diote, eta ondoren, likidazioa egiteko inprimakia bete. Amaitzeko, likidazioa egiteko inprimakia, bonuekin eta fakturarekin batera Eskoriatzako Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dute gutun azal itxi batean.

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egingo da hamabost egunean behin.